

## Ezetzaren ertzak



Inma Errea  
ITZULTZAILEA  
ETA IDAZLEA  
@inmaerrea

Uztailak 6. Iruñeko festak hastear. Kale-hamarretakoak nonahi. Banku publikoz hornitutako kantoietan, mutil gazte batzuek mintzo ozenean. Ezetzaz ari dira. Baten galdea: ezetza al da baietz ez esatea?

Argia da kezka: jakitea nola jokatu hastear diren festetan. Galduta, edo salduta, sexu-grina estreinatu berriaren eta portaera egokien arteko zalantzetan. Nerabe-kalakan, haien parera andre heldua, ni, iritsi arte –esku gorria paparrean, nahitaezko osagarri sanferminetako uniformean–.

Isilune behartua. Eta gero, ni haiengandik urrunduta, nerabeak solas animatuan berriro, hamarretakoa egin bitartean.

Ez dakit haiek ondoriorik atera zuten, baina duda baten hazia ernarazi zuten nigan: ongi ari gara?

Uztailaren 6az geroztik, maiz pentsatu dut egun hartakoaz. Erasoa sexisten inguruko albisteek eta protestek dudak eta galderak ekartzen baitzikidate beti: ongi ari ote garen, eta nola egin ahal dugun hobeki.

Eraso sexisten errealitate kezkarriaren aurrean, ideia artegarri bat: ezetzaren kanpaina egokia da, baina ez du gainditzen genero-rolak banatzeko eremu tradizionala. Ez du kuestionatzen gizonen inizatiba sexu-harremanetan, ez eta emakumeen betebeharra ere gizonen bultzadei aurre egiteko.

Eraso sexistak biziki arbuiatzen dituztenetako askok tinko jarraitzen baitute sinesten gizonen sexu-desira kontrolagaitza dela. Sistema osoak tai gabe berresten du uste hori –aisiako edukiak lekuko: kantak, filmak, publizitatea...–. Eta sinemen hori kolokan ez jartzeak ezetzaren betebeharra inposatzen digu emakumeoi. Kasurik hoberenean, baietz ala ezetz esan behar dugu, argi eta ñabardurarik gabe, zertan eta sexuan, non ñabardurak berezkoak baitira.

Ezetz esateko eskubidea guztiona da. Eskubide hori, ordea, betebeharrak bihurtzen da emakumeen kasuan, sexuaz edo maitasunaz ari garenean. Gizonetan ez: emakumeen errekerimenduei ezetz emateak ez du arazo handirik sortzen gizar-tean –ez gatazkarik, ez bortxarik...–. Eta gizonen zelaian, ezetzaren eskubideak munta gutxiago du beste eskubide indartsuago bat dutelako isilean aitortua, haien desira kontrolagaitz eta ukaezin hori baliatzeakoa.

Betiko zokoan jokatzeko ez jarraitzeko, ezetzaren esparrutik harago jo behar dugu. Hainbat uste eta baldintza jarri behar ditugu agerian eta kolokan: gizonen emakumeak erasotzeko baime-na ematen dieten usteak, eta emakumeoi geure burua gizonengandik defendatzeko beharra ezartzen diguten baldintzak. Lehenik eta behin, halakoei babes ematen dieten isiltasuna eta inkomunikazioa hautsita. ■

## Beatus



Itxaro Borda  
IDAZLEA

Irriñoa ezpainetara datorrit gure udako komentaria zenbaiten lumatik Iparralde honetan, barkatu Lapurdi-Nafarroa Beherea-Zuberoako lurraldeon, azken urteotan gertatzen den bilakaera instituzional ekumenikoa jorratzen dutelarik: J. R. Etxegarai presidentek eramanen duen Euskal Elkargoa, independentziara berehala helden ikusten dukete. Beste aldetik, abertzaleek zentro-eskuineko buruzagien ontziaz baliatzea irudikatzen dute, beraien helburuak lortzeko bide politikoa erabiliz, orain ETA erakunde ohiak, inposatu eta armak entregatuak dituela. Euskal nazioari ez zaio alabaina bere ametsa kendu behar: zer litzateke Euskal Herria adrenalinarik gabe?

Beatus moduan gaude beraz Euskal Elkargoak zer egingo duen begira. Egia da antolakuntza horren buruzagiek euskaldunak, baina gehiago naski abertzaleak, piztiak bailiran, ileak nora eskuak hara ferekatzeko ohitura berria dutela. Boterean gertatzeko, hauen premia daukate. Burkideek ere boterea dute desiratzeko, nahiz eta gaurkoan, Euskal Herria izeneko puzzlearen pieza bat soilik duten mugiarazten. Xedea orokorragoa da, datorren mendekoa berdina, beti balizko etorkizuneko, euskal errepublikarena hots.

Parioak libro: baietz Eguberrirako Iparraldea aske? ■